

***Langile Ikastolako***  
**PEDAGOGIA PLANA**

**2010-2011 IKASTURTEA**

*Urriak 25ean gelaburuei*

## **AURKIBIDEA**

**1. LANGILE IKASTOLAKO PROIEKTUAK**

**2. IKASTURTEAN ZEHAR IKASLEEKIN EGINGO DIREN  
JARDUERA OSAGARRIAK ETA EGITASMOAK**

**3. IRTENALDIAK ETA EGONALDIAK**

**4. JAIK**

**5. GURASOEKIN BURUTUTAKO PRESTAKUNTZA**

**6. BESTE EKIMEN BATZUK**

**7. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA**

## 1. LANGILE IKASTOLAKO PROIEKTUAK

Ikastolaren Hezkuntza Proiektua gauzatu eta hobetze aldera eskaintzen zaizkigun hainbat proiektutan parte hartzen dugu. Gure hezkuntza egitasmoa aberastuko duten pedagogia berrikuntzak eza-gutu, hausnartu eta gure jardunean txertatzea da xede nagusia. Ekimenok, Langile ikastolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzen den filosofiak, identitate ezaugarriak nahiz helburuek markatzen duten ildo bera dute.

Gure Hezkuntza Proiektuak dio:

*"Eskola etengabeko ikerketa leku izango da, Hezkuntza Proiektua aberastuko duten zenbait pedagogia berrikuntza bildu eta beregatzeko guztiz irekia agertuko da".*

*"Hormen itxitasuna baztertu eta kalera irtengo gara gure esperientzia aberastu eta osatze bidean".*

Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen egitasmo batzuk diru laguntza zuzena jasotzen dute. Nahiz eta txostenean beste jardueren artean tar-tekatuta azalduko diren, esanguratsuenak aipatu nahi ditugu.

### ➤ **ULIBARRI PROGRAMA:**

#### - **IKASTETXEEN HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PLANA- HNP**

Euskararen erabilera indartzea du helburu nagusia.

Euskara batzordeak Ikastolan euskararen erabileraz diagnostikoa egi-ten du lau urtez behin. Jarraian, ondorioak eta hobekuntza plana gau-zatzeko.

#### **a-FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA INDARTZEKO PROGRAMA**

Proiektu hau 2, 3, 4 eta 5 urteko ikasleen familiekin burutzen da. Helburuak: Etxeko euskara-erabilera indartzea eta zenbait ohitura desegokiak aldatzea.

"Kantu eta jolas" ikastaroa, HH3 urteko gurasoei eskaintzen zaie.

Urtxintxa taldeak ematen du.

3 saio, bina ordukoak: ikasleekin saio 1 eta gurasoekin 2 saio.

Urtarrilean burutuko da, 3 astearte, arratsalde 14:30/16:30.

"Adimen emozionala eta hizkuntzaren transmisioa" , HHko gurasoentzat. Euskara jakin edo ulertzen dutenentzat .

Hiru saio bina ordukoak. Otailean, 3 astearte, arratsalde 14:30/16:30. Iñaki Pikabeak zuzendutako jarduera da.

“Familia-eskola eta euskara” hitzaldia HHko gurasoentzat Paula Kasaresek.

“Ipuin ikastaroa” HH4 urteko gurasoentzat. Hiru saio bina ordukoak Beatriz Egizabalek martxo aldera.

## **b- NOLEGA PROGRAMA**

Egitasmo honen helburu nagusia ahozko adierazmena sustatzea da. Bere baitan hartzen ditu: Kantagintza, Antzerkigintza, Irratigintza eta Bertso-lanketa. Ikastolan landutakoa, jendaurreko emanaldiekin bukatzen da.

### ➤ **AGENDA 21**

Proiektu honen helburua Eskolako Ingurumenaren Kudeaketa jasangarria sustatzea da. Egitasmoan eragile ezberdinek parte hartzen dugu: Foru Aldundia, Udala eta herriko ikastetxeak. Landuko den gaia herriko eskolen artean adosten da. URAren gainean arituko gara, iaz hasitakoari jarraipena emango zaio.

Gurean ohiko ditugun proiektuekin jarraitzen dugu:

- URDAIBAIko ekosistema ezagutzen, LH6.maila.
- ARTEAGAKo Baratze baserri-eskolan egonaldia. Baserri giroa ezagutzeko, animalien zaintza, baratzean landatu eta erein. LH3.maila.
- PAGOETAKo ekosistemaren ezagutza, LH5.maila.
- PASAIAKo portura bisita. LH4.maila.
- TXINGUDI KO PADURA: LH3.maila.
- PAGOETA: Parke Naturalaren ekosistema ezagutu, LH5. maila.
- MIRAMONeko maketa-eraikinak ikusi eta marraztu: Gipuzkoa gaia, LH4 maila.
- BASERRI bat ezagutu Hernanin, LH3. maila.
- AZPEITIAN TREN MUSEOA. Gipuzkoa gaia, LH. maila.
- ARTELATZ taldeak zuzendutako proiektuak:
  - Ontziak birziklatzeko planta Urnietan, LH4. maila.
  - Landaretza Urnietan, LH5. maila.
  - Añarbeko araztegia-Ura, LH6. maila.

## 2. IKASLEEN JARDUERA OSAGARRIAK

Gure pedagogia proiektua gauzatzeko eta aberasteko jarduera osagarri anitzetan parte hartzen dute ikasleek. Ikastetxetik kanpo irte-naldiak burutuz nahiz kanpotik datorrenari ikastetxean leku emanez.

### ➤ HIZKUNTZAKO JARDUERA OSAGARRIAK

- NOLEGA proiektua:
  - Bertso-lanketa-, LH5-6 mailak. Jendaurrekoa, maiatzean Biterin egingo da.
  - Kantagintza, LH4 maila. 3 emanaldi.
  - Antzerkigintza, LH 6maila.
  - Irratigintza, LH5.maila.
- ANTZERKI FORUM. Arantzazun. LH6.maila.
- Antzerkia: La flauta mágica. LH5. eta 6. maila.
- ESKOLATIK ANTZERKIRA:
  - HH4-5: Biterin
  - LH 1-2-3-4-5-6 : Donostian
- ZINEMA, Tinkoren eskaintza Biterin: LH 3-4-5-6 maila.
- AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA. LH5.6.m zikloa. Udal euskara batzordearen laguntzaz.
- IRRATIGINTZA LHkoek lantzen dute Laubidietan.
- HALA BAZAN Doberaren egitasmoa-LH5.mailakoek sortutako ipuinak argitaratzen dira.
- IPUIN KONTALARIA Doberaren egitasmoa. LH5.maila.
- GAZTETXO aldizkaria. Doberak koordinatu eta eskolarteko jardura da. LH4-5-6 mailakoek egiten dute. Urtean 2 ale argitaratzen dira.
- IDAZLEAK LIBURUTEGIAN: LH 6. maila
- 

### ➤ ARTE HEZKUNTZAKO JARDUERA OSAGARRIAK

- TXILLIDA-LEKU : Arte hezkuntzari loturik, LH 6.maila  
HH5 urte

### ➤ MUSIKAKO JARDUERA OSAGARRIAK

- KANTAGINTZAKo 3 emanaldi : LH4 maila
- Gabon kantak, abenduaren 24an
- Santa eskean-LH3.zikloa

- Kaldereroak- HH eta LH1-2-3-4
- Piano kontzertua-LH3. zikloa

#### ➤ INGURUMEN GAIAREN OSAGARRIAK:

- AGENDA 21 gaiari lotutako hainbat jarduera, gela barruan nahiz kanpoan, LHn tutorearekin burutzen dira.
- BIDE HEZIKETA, saio teorikoa eta praktikoa: LH
- ESKOLAKO LANDARETZA ETA BARATZEA, ikastolan lantzen dute LH 1-5-6.mailak.
- BARATZE Baserri-eskola Gauegiz-Arteaga: Bizidunak eta bere ingurua. Baserri giroa ezagutzeko. LH3.maila
- AQUARIUMera bisita arrainen gaia lantzeko, LH2.maila.
- TXINGUDI padurara bisita. LH3.maila.
- URDAIBAI: "ekosistema berri bat ezagutzen", LH6 maila
- URNIETAKo plastikozko ontzien plantara, LH5.maila
- Kontsumo tailerrak ikastolan, apirilean: LH3-4-5-6 maila
- LEITZARAN-Uraren interpretazio zentroa- LH2maila

#### ➤ GORPUTZ HEZIKETAKO JARDUERA OSAGARRIAK

- IGERIKETA ikastaroa: LH1-2 mailak, 20 eguneko ikastaroa.
- TXURI-URDINera patinatzerak: LH3-4 mailak, saio bat.
- HERRI-KIROL topaketak: LH3-4 mailak.
- XIBA JARDUNALDIAK: LH3-4-5-6 mailak.
- ESKALATZE SAIOA Donostiako Pio Barojan: LH5 maila.
- SURF hastapena: LH6 maila.

- ❖ ESKOLA KIROLA: Eskola orduz kanpoko jarduera.  
LH3-4-5-6 maila

Benjaminak: 94 ikasle, LH 3. eta 4. maila.

Kirol guztietan parte hartzen dute.

a- Taldeko kirolak dira: Errugbia, saskibaloia eta futbola.

Partidak antolatzen dira, lehia dago.

b- Bakarkakoak: Judo, herri kirolak, txirrindularitza, zuhaitz eguna, igeriketa, atletismoa. Ludikoak dira.

Alebinak: 73 ikasle, LH 5. eta 6. maila.

Bi kirol aukeratzen dira: urritik abendura eta  
urtarriletik maiatzera.

**a-** Taldeko kirolak- Lehiketa

\*Neskak 29 dira:

Lehen aukera: pala-10, boleibola-10, atletismoa-8, gimnasia-1

Bigarren aukera: futbola-22, txirrindularitza-3, igeriketa-2  
gimnasia-1, saskibaloia-1

\*Mutilak 44 dira:

Lehen aukera: Errugbia-8, saskibaloia-14, atletismoa-4,  
eskupilota-15, pala-4

Bigarren aukera: futbola-39, txirrindularitza-5

**b-** Bakarkakoak- Ludikoak

*Zehazteke: Atletismoa, herri kirolak, judoa, txirrindularitza*

➤ **BESTE JARDUERA BATZUK**

- Tailerrak gurasoen partaidetzarekin. Taldekatze malguak eginda ekipoko ikasleen arteko harremanak sustatzea da xedea. *Zehazteko*
- BIZIKLETA FESTA. Udalak antolatuta

### **3. IRTENALDIAK ETA EGONALDIAK**

Hezkuntza proiektuan ezaugarri esanguratsuenen artean, ikastolan irtenaldiei ematen zaien garrantzia litzateke. Ingurune hurbilenetik hasi eta adinak eta jakin-minak eramaten gaitu urrutiagoko lekuetara. Egun pasak, egun erdiko txangoak nahiz gauak etxetik kanpo eginez. Irtenaldietan helburu hauek betetzen saiatzen gara: ingurua behatu, leku berriak ezagutu, abaguneaz gozatu, elkarren arteko harremanak landu, autonomia seIkasleek adinean gora doazen heinean gaiaren lanketak eta irtenaldiak lotura estua daukate.

Bidaia eta irtenaldiak pedagogia proiektuan ezinbestekoak direnez kostuaren zati bat ikastolako urteko aurrekontuetan sartzea erabakita dago

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

Maila	Jardueraa	Ezaugarriak
<b>HH2</b>	Inguruko parkeetara txangoak:  1. Sorgintxulo 2. Atarraboyo	-Ekipoa -Finkoa -Goiza -4 tutore+ Mainer
	Sagastialde auzoa	-Ekipoa -Finkoa -Egun pasa -4 tutore+ Mainer
	Hernialde	-Ekipoa -Finkoa -Egun pasa -Autobusez -4 tutore+ <u>2 laguntza</u>
	FESTAK: 1. Udazkena 2. Olentzero 3. kaldereroak 4. Inauteriak	



2010/2011 IKASTURTEKO JARDUNALDIK-IRTENALDIK

MAILA	DATA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>HH3</b>	<u>Urriak 26</u> Ixiar-Jone Junkal-Ines	Atletismo parkera	-ekipoa(4talde) -finkoa -egun pasa -oinez -4 tutore+2 laguntza
	<u>Azaroak 4</u> Ines-Junkal	Gladysenea-Donostia	-2 talde -finkoa -egun pasa -autobusez -2 tutore+2 laguntza
	<u>Azaroak 19</u> Ixiar-Jone	Gladyisenea	-2 talde -finkoa -egun pasa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	<u>Azaroa/ Abendua</u> Jone-Ixiar	Parke botanikoa Atarrabiyo parkera	-2 talde -oinez -2 tutore+ 2 laguntza
	<u>Azaroa/ Abendua</u> Junkal-Ines	Parke botanikoa Atarrabiyo parkea	-2 talde -oinez -2 tutore+2 laguntza
	<u>Martxoa</u> Ixiar-Jone Junkal-Ines	Jauregi bailara	-ekipoa -finkoa -egun pasa -oinez -4 tutore+ 2 laguntza
	<u>Maiatzak 5-6</u> Jone- Ixiar	ORIO	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	<u>Maiatzak 12-13</u> Ines-Junkal	ORIO	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
		<u>FESTAK:</u> 1. Udazkena 2. Olentzero 3. Kaldereroak 4. Inauteriak	
<i>Datak zehazteke Laguntzak izendatzeke</i>			

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	DATA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>HH4</b>	Urtean zehar	<u>Herria ezagutu:</u> -parkeak -ingurua	-ekipoa (4 talde) -finkoa -egun pasa/egun erdia -oinez -4 tutore+ laguntza 1 (Pili Mujika)
	Azaroak 12	Gladysenea-Donostia	-ekipoa -finkoa -egun pasa -autobusez -4 tutore+ laguntza 1 (Pili Mujika)
	Martxoak 17-18 Tutoreak:	AZKOITIA	-2 talde -leku berria -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	Martxoak 24-25 Tutoreak:	AZKOITIA	-2 talde -leku berria -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	Maiatzak 26-27 Tutoreak:	ORIO	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	Ekainak 2-3 Tutoreak:	ORIO	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ 2 laguntza
	Apirila ?	Antzerkia-Biteri ?	-ekipoa -2 tutore+ laguntza 1
		<u>FESTAK:</u> 1. Udazkena 2. Olentzero 3. Kaldereroak 4. Inauteriak	
Azkoitia eta Oriorako laguntzak izendatzeke			

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	DATA	JARDUERAK	EZAUGARRIAK
<b>HH5</b>	Urriak 28-29 Elena-Mirari	ASTIZ	-2 talde -leku berria -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1+ hezitzailea: -Arantxa Aldasoro - Eneritz Mugerza
	Azaroak 4-5 Erramun Mari Jose Etxe	ASTIZ	-2 talde -leku berria -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1 <i>Mariabe Olanan</i>
	Apirilak 5-6 Tutoreak:	HARRITXULO	-2 talde -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1
	Apirilak 7-8 Tutoreak:	HARRITXULO	-2 talde -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1
		INGURUKO PARKEAK: - -	
	Udaberria	TXILLIDA LEKU	-ekipoa -finkoa -egun erdia -autobusez -4 tutore + lagunaza+ hezitzailea
	Apirila ?	BITERI: Antzerkia ?	-ekipoa -oinez -4 tutore+ lagunaza+ hezitzailea
		<u>FESTAK:</u> 1. Udazkena 2. Olentzero 3. Kaldereroak 4. Inauteriak	
Jarduerak osatu Datak zehaztu Laguntzak izendatu			

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>LH1</b>	<b><u>Festak:</u></b> a-Olentzero festa b-Kaldereroak c-Inauteriak d-Sanjoan festa	
	<b>Bide Heziketa:</b> -ikastolako saioa -Hernaniko erdigunea	Gelaka, ordubeteko saioak
	<b>Donostia: Antzerkia</b>	Egun erdia
	<b>Hernaniko txokoak:</b> auzo, parke, mendi...	Egun pasa, egun erdia
	<b>Hernaniko kiroldegia</b>	Igeriketa ikastaroa, 20 saio
	<b><u>Pasaia-Piraten etxea</u></b> <i>2 txanda</i> a-Azaroak 11-12 b-Azaroak 18-19	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1
	<b><u>Arantza</u></b> <i>2 txanda</i> a-Maiatzak 9-10 b-Maiatzak 16-17	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore+ laguntza 1

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>LH2</b>	<b><u>Festak:</u></b> a-Olentzero festa b-Kaldereroak c-Inauteriak d-Sanjoan festa	
	<b>Bide Heziketa:</b> -ikastolako saioa -Hernaniko erdigunea	Gelaka, ordubeteko saioak
	<b>Leitzarari:</b> uraren interpretazio zentroa <i>datak</i>	-2 talde -egun pasa -trenez -2 tutore+ laguntza 1
	<b>Donostia:</b> Aquarium	-ekipoa -finkoa -egun pasa -autobusez? -4 tutore+ laguntza 1
	<b>Donostia:</b> Antzerkia	-ekipoa -egun erdia -autobusez -4 tutore+ laguntza 1
	<b>Zabalegi nekazari eskola?</b>	
	<b>Hernaniko txokoak:</b> auzo, parke, mendi...	Egun pasa, egun erdia
	<b>Hernaniko kiroldegia</b> <i>datak</i>	Igeriketa ikastaroa, 20 saio
	<b><u>Etxarri-Larraun: Arotzenea</u></b> <i>2txanda</i> a-Azaroak 2-3 b-Maiatzak 4-5	-2 talde -finkoa -2 egunekoa -autobusez -2 tutore- laguntza 1
	<b><u>Beire</u></b> Martxoak 30-31-apirilak 1	-ekipoa -finkoa -3 egunekoa -autobusez -4 tutore+laguntza 1+hezitzaile
	<i>Datak eta laguntzak zehazteko</i>	

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	JARDUERAK	EZAUGARRIAK
<b>LH3</b>	<p align="center"><u>EGONALDIAK</u></p> <p><b>1.</b> Gauegiz-Arteagan Baratze baserri eskola Urriak 27-28-29</p> <p><b>2.</b> Orio Maiatzak 17-18</p>	<p>-Ekipoa -Finkoa -3 egunekoa -Autobusez -4 Tutore -Gurasoak eta ikastolak ordainduta -Bertako adituak zuzenduta</p> <p>-Ekipoa -Ezohikoa -2 egunekoa -Autobusez -4 tutore+ -Gurasoak eta ikastolak ordainduta</p>
	<p align="center"><u>EGUN BAKARREKO IRTENALDIAK</u></p> <p><b>1.</b> Txingudiko padura Azaroak 10</p> <p><b>2.</b>Antzerkia: Donostiako Victoria Eugenia Martxoak 30</p>	<p>-Ekipoa -Finkoa -Trenez -Tutoreak -Ikastolako poltsatik ordainduta -Bertako adituak zuzenduta</p> <p>-Ekipoa -Finkotzen -Autobusez -Tutoreak -Ikastolako poltsatik ordainduta</p>
	<p align="center"><u>EGUN ERDIKO IRTENALDIAK</u></p> <p><b>1.</b>Agenda 21: uraren gaia Lantzeko</p> <p><b>2.</b>Hernaniko auzoak, ibaiak zerbitzuak, mendiak, mu- gak. a-Santa Barbara b-Urumea c-Erroxali baserria d-Azoka</p>	
	<p align="center"><u>FESTAK</u></p> <p><b>1.</b>Gabonetako kalebuelta <b>2.</b>Kaldereroak <b>3.</b>Inauteriak <b>4.</b>Korrika</p>	
	<p align="center"><u>ZINEMA</u></p> <p>Biterin: PEPPER Urtarrilak 27</p>	<p>-Ekipoa -Finkoa -Tutoreak -Ikastolako poltsatik ordainduta -Tinko taldeak antolatuta</p>

Maila	JARDUERAK	EZAUGARRIAK
<b>LH3</b>	<u>BIDE HEZIKETA</u> Udaltzaingoaren eskaintza Azaroak 23-24-25	-Taldeko jarduera(gelaka) -2 saio teoriko ikastolan eta saio 1 praktikoa herrian.
	<u>GORPUTZ HEZKUNTZAREN OSAGARRIAK</u> <b>1.</b> Txuri-urdinera patinatzer Eguna:  <b>2.</b> Eskolarteko pilota Xiba taldearekin Maiatzak 5, goizez	-Ekipoa -Finkoa -Autobusez -Tutoreak+ GH irakaslea -Ikastolako poltsatik ordaintzen da  -Ekipoa -Finkoa -Tutoreak+GH irakaslea -
	<u>KONTSUMO TAILERRAK</u> Tailerrak: 1. 2. Apirilak Ordua	

2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

MAILA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>LH4</b>	<p align="center"><u>ZINEMA</u></p> <p>Tinko: Malabar printzesa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Biteri</li> <li>-Tutoreak</li> <li>-Ikastolako poltsatik ordainduta</li> </ul>
	<p align="center"><u>ANTZERKIAK</u></p> <p><b>1.</b>Uharte ezezaguna-Donostia Victoria Eugenia antzokia Martxoak ¿?</p> <p><b>2.</b>LH6 mailakoen emanaldi Biterin? Maiatzean ¿?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkatze bidean</li> <li>-Autobusez</li> <li>-Tutoreak</li> <li>-Ikastolako poltsatik ordainduta</li>   <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Tutoreak</li> </ul>
	<p align="center"><u>KANTAGINTZA-KANTUZ</u></p> <p>3 emanaldi:</p> <p><b>1.</b> Ezkiagan-Ekainean <b>2.</b> <b>3.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Tutoreak+ kantuz</li> <li>-Autobusa</li> </ul>
	<p align="center"><u>BIDE HEZIKETA</u></p> <p>Udaltzaingoak sustatuta Gelaka burutzen da: -2 teoria saio ikastolan -Saio praktikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Taldeka</li> <li>-Tutorea eta udaltzainak</li> </ul>
	<p align="center"><u>HONDAKINAK</u></p> <p>Artelatze zuzenduta Gelaka burutzen da: -Teoria, ikastolan goiz bat -Herrian, arratsalde bat -Urnietako ontzien biltegia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gelaka</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Tutorea eta Eli</li> <li>-Trenez</li> </ul>
	<p align="center"><u>KONTSUMO TAILERRAK</u></p> <p>Ikastolan <b>1-</b> <b>2-</b> Apirilak ¿?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gelaka</li> <li>-</li> </ul>
	<p align="center"><u>G HEZKUNTZAKO</u> <u>JARDUERAREN OSAGARRIAK</u></p> <p><b>1</b>-Hondartza-Donostia</p> <p><b>2</b>-Txuri-urdin-Patinatzera</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Egun pasa</li> <li>-Oinez/autobusez</li> <li>-Tutoreak+ GH</li>   <li>-Ekipoa</li> <li>-Finkoa</li> <li>-Autobusez</li> <li>-Tutorea+GH</li> <li>Ikastolako poltsatik ordainduta</li> </ul>



MAILA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>LH4</b>	<p style="text-align: center;"><u>GIPUZKOA</u></p> <p><b>1-</b>Miramongo eraikinak behatu eta marraztu.</p> <p><b>2-</b>Donostia hiria</p> <p><b>3-</b>Pasaiko portua</p> <p><b>4-</b>Azpeitiko tren museoa</p>	<p>-Ekipoa -Finkoa -Goiza -Autobusez -Tutoreak</p> <p>-Ekipoa -Finkoa -Egun pasa -Trenez -Tutoreak+</p> <p>-Ekipoa -Finkoa -Goiza -Trenez -Tutoreak</p> <p>-Ekipoa -Finkoa -Egun pasa -Autobusez -Tutoreak+</p> <p>Ordaiketak ikastolako poltsatik egiten dira.</p>
	<p style="text-align: center;"><u>URIBARRI-GANBOA</u> <u>ZUHATZA IRLA</u></p> <p>Maiatzak 24-25-26-27</p>	<p>-Ekipoa -Finkoa -4 eguneko -Autobusez -3 tutore+ 3 irakasle -Familiek eta ikastolako poltsatik ordaintzen da.</p>

## 2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

**LH5.maila**

DATA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>Irailak 15</b>	Hondartza	Donostia
<b>Irailak 28</b>	Landaretza-A taldea	<i>Artelatz</i>
<b>Irailak 29</b>	Landaretza-C taldea	<i>Artelatz</i>
<b>Irailak 30</b>	Landaretza-B taldea	<i>Artelatz</i>
<b>Urriak 26</b>	Pagoeta	Talde 1 eta erdia
<b>Urriak 28</b>	Pagoeta	Talde 1 eta erdia
<b>Azaroak 10</b>	Bide Heziketa A-9/10 B-10/11 C-11:30/12:30	Teoria saioa
<b>Azaroak 11</b>	Bide Heziketa A-9/10 B-10/11 C-11:30/12:30	Teoria saioa
<b>Azaroak 17</b>	Bide Heziketa-A 9/ 11	Saio praktikoa
<b>Azaroak 18</b>	Bide Heziketa-B 9/11 -C 11/12:30	Saio praktikoa <i>Udaltzaingoa</i>
<b>Azaroak 26</b>	Zinema: Malabar printzesa	<i>Biteri-Tinko taldea</i>
<b>Azaroak 29</b>	Txotxongilo jaialdia	Tolosa-Topic
<b>Abenduak 3</b>	Ipuin kontalaria	Biteri
<b>Abenduak 24</b>	Olentzero-kale buelta	
<b>Urtarrila</b>		
<b>Otsailak 4</b>	Santa Ageda koplak	
<b>Martxoak 4</b>	Inauteriak	
<b>Martxoak 30?</b>	Antzerkia: Uharte ezezaguna	Donostia Victoria Eugenia antzokian
<b>Apirilak 4?</b>	Kontsumo tailerrak: 1- 2-	Ikastola
<b>Maiatzak 3</b>	Antzerkia: La flauta mágica	Donostia
<b>Maiatzak ?</b>	G Hezkuntzako jarduera osagarria: eskalatze saioa	Pio Baroja-Donostia
<b>Maiatzak 31 eta</b>	Barria -Bizkaia	-Ekipoa -Finkoa -4 egun -Autobusez -3 tutore+ -Familiak eta ikastolako poltsatik ordainduta
<b>Ekainak 1-2-3</b>		
<i>Data zehazteko</i>	Piano jotzailea Eskalatze saioa	

## 2010/2011 IKASTURTEKO JARDUERAK ETA IRTENALDIAK

**LH6. maila**

DATA	JARDUERA	EZAUGARRIAK
<b>Irailak 22</b>	Santa Klara uhartea	Donostia
<b>Urria</b>		
<b>Azaroak</b> 15-16-18-22	Bide hezkuntza	Udatzaingoak -Teoria saioak -Praktikoa
<b>Azaroak 26</b>	Zinema: Malabar printzesa	Tinko taldeak Biterin
<b>Azaroak 29</b>	Txotxongilo jaialdia	Tolosa-Topic
<b>Azaroa/Abendua</b>	Añarbeko ur araztegia	Artelatz
<b>Abenduak 24</b>	Olentzero-kalebuelta	
<b>Urtarrila</b>		
<b>Otsailak 4</b>	Santa Ageda koplak	
<b>Martxoak 4</b>	Inauteriak	
<b>Martxoak 30?</b>	Antzerkia: Uhartea ezezaguna	Donostia
<b>Apirilak ¿?</b>	Kontsumo tailerrak ikastolan: 1- 2-	
<b>Maiatzak 3</b>	Antzerkia: La flauta mágica	Donostia
<b>Maiatzak ?</b>	Bertso jaialdia	Biterin
<b>Maiatzak?</b>	Bertso emanaldia	Ikastolan
<b>Maiatzak ?</b>	Gure antzerki emanaldia	Biterin?
<b>Maiatzak</b> 24-25-26-27	Burgos-Arlanzón-Atapuerca	-Ekipoa -Autobusez -Finkoa -4 eguneko -Familiek eta ikastoako Poltsatik ordainduta. <b>3 tutore+</b>
<b>Ekaina</b>		
Data zehazteko	-GH jarduera osagarria:surfa? -Urdaibaiko irtenaldia -Piano jotzailea -Idazlea ikastetxean	

## 4. JAIAK

Langile ikastolaren ezaugarrietako bat da festei ematen zaien trataera. Ikasleek bertako ohiturak ezagutu ditzaten parte hartzera bultzatzen ditugu herrian antolatzen diren ekintza eta festetan. Halaber, euskara eskolaz Kanpoko jardunetara hedatzea eta euskal kulturaren murgiltzea ahalbideratzen dute herriko festak.

Jaiak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan:

- HH **Udazkenaren festa** ikastolan.
- **Olentzero**ekin kale buelta: HH alde batetik eta bestetik LH1.zikloa. Ibilbidea, Meabe, Karobieta inguruan.
- **Olentzero**. Eguberri bezperan, Karobieta, Atsegindegi eta kaskoan zehar. LH2-3.zikloak.
- **Santa eskean**(Ageda): LH5.maila Laubidieta.  
LH6.maila Bidebieta eta Meabe.
- **Kaldereroak**: HH eta LH1-2.zikloak. Herrian zehar.
- **Inauteriak**: HH eta LHko talde guztiak.
- **Udako festa**. Sanjoan bezperetan. HH eta LH1zikloa.
- **San Joan iragarpen emanaldia**. LH 3.zikloa.

Haur hezkuntzan festen inguruko antzerkiak antolatu eta antzezten dituzte guraso batzuk, ikasturtean zehar bat edo bi emanaldi eginez.

## 5. GURASOekin BURUTUTAKO PRESTAKUNTZA

Ikastolako partaide guztien elkarlana nahitaezkoa da ikastetxeko hezkuntza proiektua gauzatzeko bada. Ildo horretatik bultzatzen dira gurasoentzat hitzaldiak eta ikastaroak, formazio plan osagarria, alegia.

### ➤ *Ikastaroak eta hitzaldiak- Zehazteke*

- a- Hizkuntza normalkuntza planaren barruan HHko gurasoentzat.
- b- Zikloka antolatzear daudenak.

## 6. BESTE EKIMEN BATZUK

- IKASTOLA EGUNA, Ekintza batzordeak ekainaren lehen larunbatean antolatu ohi duen jaia da.
- HEMEN GATUZ aldizkaria, ikasturtean zehar hiru ale argitaratzen dira ekintza batzordearen ardurapean.

## 7. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Hezkuntza Proiektua sustatzeko ikastolako hezitzaileen prestakuntza etengabekoa izan behar du, gai orokorretan zein arlotan ere. Beste esperientziak ezagutu, eguneroko jarduna hausnartu eta elkar-jarri, pedagogia berrikuntzetara adi egon, premiaz jabetu, etab. prestakuntzaren xede izango dira.

### **PROIEKTUAK:**

- a- Curriculum berria
- b- Hobekuntza plana
- c- Ulibarri proiektua
- d- Agenda 21
- e- IKT: eskola 2.0
- f- Harrera plana

### **FORMAZIOA:**

- a- IKT dinamizatzaileak astero Berritzegunean jaso eta klaustroaren formazio saioak sustatuko ditu , beste barzordeekin elkar-lanean.
- b- Ikasiz proiektua: 6 orduko formazioa, LH6 mailako irakasleak
- c- Klaustroaren formazio saioak zikloko proiektuetatik abiatuko dira.
- d- Irale:
  - R300, 1.hiruhilekoan 2 irakasle, ordezkapenekin.
  - R600, 2. hiruhilekoan irakasle 1, ordezkapena.
  - H407: Euskal curriculum, 15 ordu, eskola orduz at, ? irakasle

### **IKASTETXETIK KANPO: IKASTAROAK ETA MINTEGIAK**

- Agenda 21: herriko ikastetxeen koordinazioa.
- Hernaniko udalean zuzendarien bilera.
- Berritzeguneko mintegiak:
  - HNP: Hizkuntzaren Normalizazio Plana
  - Zuzendarien bilera
  - IKT
- Sortzen-Ikasbatuaz:
  - Zuzendarien mintegia.
- HIK HASI udako Topaketeta.
- MCEP-eko kongresua, Gorputz tailerreko topaketak, Iparraldeko topaketak...
- *GARATU programaren barruan antolatutako zenbait ikastaroak*